



Iritziak

Bartzelona, aukera galdua



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO
KAZETARIA

Ada Colauk Kataluniako hiriburu-ko alkate karguan segituko du, hauteskundeen kanpaina aurretik imajinatzen zaila zen testuinguru batean: PSCren aldeko zortzi botoen, lehen ministro ohi Manuel Vallsen hautagaitzaren hiru botoen –orain arte Ciudadanosek sostengatua– eta bere zerrendak lortutako hamar errejidoreen botoekin. ERCk eta Barcelona en Comú zinegotzi kopuru bera dute, baina bigarren honek 5.000 boto gutxi lortu ditu eta hauteskundeak galdu.

Egiaz, udal batzarraren osaketak zapo-ge gazi-goxoa laga dio jende askori, Barcelona en Comú (BeC) eta ERCren arteko lehia aukera gisa ikusten baitzuen azken urteetako aliantza politikak aldatzeko: ardatz nazional eta soziala uztartzeko aurrerariak ezarri, gehiengoak eraikitzen joan ahala, justizia sozialaren eta autodeterminazioaren alderako bidea egiteko.

Zarata mediatikoaz harago, amaiera horren arrazoiak bi aldeetan daude. Lehenbizikoa: Comuns-en ingurukoek ez zuten alkatetza galdu nahi eta Ada Colau ERCren menpeko lidertza batean zokoratu –kasu onenean lidertza partekatua– edo oposizioan amaitu ere. Horrela jokatuz gero, euren kapital politikoa galtze bidean ikusten zuten, baita PSOEtik ezkertera –estatu osoan– gorantza doan espazio politikoaren inguruan hesi bat jartzea ikusi ere.

Badago beste faktore bat, ez gutxiesgarria: Iniciativa per Catalunya Verds-en

Nola eutsiko dio Ada Colauk PSCren eta Vallsen xantaiari, aurrekontuak bezalako diru sartu-irtenen neurri garrantzitsuak onartzeko? Zer-nolako rola jokatuko du ERCk oposiziotik, alderdi bozkatuena izanda?

(ICV) eragina edota pisua Kataluniako Comuns-en egitura eratzailean. PSUCetik eratorritako marka bankuekin dituen zorrak itota bizi da ozta-ozta: barne egitura mantentzeko eta kargu eta soldata publikoei eusteko hamar milioi euro baino gehiagoko zorrak ditu. Egotea horri eusteko modu bakarra PSCrekin ituntzea zen –tradizionalki kide gogokoena izan dena–, gobernu akordioaren terminoak ongi zehaztuta, oraindik ere negoziatzen ari dena, botere akordioa udalerriaz harago eraman ahal izateko: Metropoli eta Diputaziora hain zuzen ere. Hau da, euren konfiantzazko kargu politiko pila lanean ari den erakunde publikoetan ere agintzeko.

Tragikomedia horren beste aldean ERC dugu. Antzinako Convergènciarekin menpekotasunaren ondorioz –*procés* dela kausa– lasta eta eragozpen handiegia dakartza arrastaka. Horren lekuko

dira udaletxean, hedabideetan eta sare sozialetan azken legealdian ikusi ditugun oposizio gogorrak, hiriaren edozein arazoa erabilia izan baita Barcelona en Comú-ren kudeaketaren aurka modu gogorrean egiteko, askotan euren kideen aurka jotzeko euren izena trakets erabiliz. Adibiderako: tranbiaren bateratze proiektua edota askotariko kontsulta bezalako proposamenak etengabe blokeatzea. ERCk *a priori* bi egitasmo horiek partekatzen zituen, baina interes elektoral hutsak direla eta, deslaitu ziren.

Faktore horiek eta herritarren interes orokorretik at dauden kalkulu politikoak erabakigarriak izan dira, baita hiriak merezi duen elkar ulertzea ezinezkoa bihurtu ere. Emaitza: botere finantzarioen ordeko Manuel Valls hor egotea, hainbat enpresarik eta bankarik hauteskunde kanpaina ordaindu diotela agerikoa izaki; hiriaren politikak baldintzatzen gaitasuna eta politikaren zentralitatea lortu dituen, bozka-ontzietan espresatu denarekin bat ez datorrena.

Kontua orain hauxe: nola eutsiko dio Ada Colauk PSCren eta Vallsen xantaiari, aurrekontuak bezalako diru sartu-irtenen neurri garrantzitsuak onartzeko? Zer-nolako rola jokatuko du ERCk oposiziotik, alderdi bozkatuena izanda? Beligerantzia jokatzen jarraituko du edo hiriaren aldeko kontsentsu handiak bilatuko? Hauxe da berme bakarra: herritarrak ez dira deus esan gabe geldituko. ●